


45 Irakurri hurrengo istorioa, eta erantzun, ondoren, galderei:

Karlos, Pello eta Leire hiru anai-arreba dira. Txikiena Leire da, zazpi urte dauka eta bere amaren izen berbera dauka. Karlos da anaia nagusia, baina Pello hura baino altuagoa da eta Leire baino askoz altuagoa.

Hirurak oso kirolari onak dira. Pello da onena saskibaloian. Leirek nahi luke berari raketa bat erostea tenisa gustatzen zaiolako, eta Karlosek arazo handiak dauzka txirrinduaren gurpilak askotan zulatzen zaizkiolako.



Nor da arreba txikia?

Nor da anaia altuena?

Zein da arrebarik baxuena?

Nork jokatzen du ongien saskibaloian?

Zein kirol praktikatzen du Leirek?

Zer hondatzen zaio Karlosi?

Nola du izena ume hauen amak?